

JATORRIA

Jon Etxaide Itharte 1920ko martxoaren 27an jaio zen Donostiako Frantzia ibilbidean zegoen Etxe-txuri etxean, Donostian hilez 1998ko ekainaren 30ean.

Ama Maria Dolores Itharte zuen, eta Inazio Maria Etxaide, berriz, aita.

Peritu Agrikola ikasten hasi bazen ere, bere lanbide bilakatuko zen delineante-ikasketak burutu zituen. Urteetako ogibidea baino areago idaztea maite zuen, eta aurreko bere idazlanak berbegiratzea, hobetzea eta osatzea.

Euskarazko eskolak ematen ari zela Donostiako bere lantegian ezagutu zuen Pilar, emaztea eta urtetako laguna izango zena.



Jon Etxaide, 1920-1998.




INAZIO MARIA ETXAIDE, AITA

Injenieri bikaina, Gipuzkoako telefonikako zuzendari izan zen. Teknikari azkarra eta intelektual aparta izateaz gain, euskaltzale eta integrista nabarmena ere izan zen.

Gazte Integristen buru izan zen 1910-1914a bitartean eta, era berean, *La Cruz* (1928) astekariko sortzaileetakoa. *Legión Católica Española* (1928), *Centro de Actuación y Propaganda Católica* (1932) eta *Editorial Católica de Guipúzcoa* (1932) zirelakoan sortzaile ere izan zen.



Jon Etxaide haur txikia.



Jon Etxaide Itharte
1920ko martxoaren
27an jaio zen
Donostiako
Frantziako ibilbidean
zegoen Etxe-txuri
etxean. Geroago
Etxaidetarrak
Aldatzain etxera
joan ziren bizitzera
Ategorrietan.

Gazte Integristetan euskarazko eskolak ematen hasi zen (1910) Ramon Inzagarairekin batera. Euskaltzain izan aurretik eta ondoren ere —1942an izendatu zuten— euskararen inguruko lan ugari argitaratu zuen: *Prefijación y composición en idioma euskaro* (1911), *Tratado de sintaxis en el idioma euskaro* (1912), *El verbo vascongado* (1923), *Telefonoaren sortze eta aurrerapena* (1929), *Sobre el origen y parentesco del pueblo euskaro y su idioma* (1935) eta abar. *Euskal-Esnalea*, *Euskera* eta *BRSVAP* argitalpenetan ere idatzi zuen, besteak beste. Integrista sutua zen Inazio Maria Etxaide, defendatzen zituen ideiak bere bizitzako —eta familiako beraz— maila guztietan aplikatuz.

1952tik 1962ra bitartean Resurrección Maria Azkueren oinordetza hartuz Euskaltzainburu izendatu zuten.



Inazio Maria Etxaide, 1884-1962




Etxaide eta Ithartetarrak Eskoriatzako elizako atarian. Jon paretan eserita ageri da, ezkerrean.

GERRA ETA KARTZELA

Jon Etxaide lehen urratsak ematen ari zela itzulpen-lanetan, gerrak bete-betean harrapatu zuen. Sortze-lanetan hasi bezain pronto utzi behar izan zion zereginari hamasei urterekin, egoerak hala behartuta.

Bi anaia zaharrenak gerran ibili ziren. Garaiko legeak zioenez, bi anaia frentean bazeuden, hirugarrena mobilizatuz gero hau libre gelditzen zen. Eta hala gertatu zen Jon Etxaiderekin; nahiz eta frentera ez joateko agiria etorri bitartean, Lizarran egon behar izan zuen hamabost egunez.

Jon Etxaide mugan harrapatu zuten *Gernika* aldizkariaren zenbaki bereko ale bakanak zituela; Martutenen



Bost neba-arrebek elkarri euskaraz egiten zioten beti, gurasoek eta aitak bereziki, hala irakatsita.

lehenik eta Gasteizen ondoren gartzelaratu zuten, sei hilabetez denetara.

Euskarazko eskolak ere eman zituen, Donostiako kale nagusian zuen lantegiko bulegoan. Dohain eta ezkutuan ematen zituen.



Jose, Jon eta Ignazio Etxaide Itharte anaia.

EUSKALTZALETASUNAREN BIDETIK

Lehen hizkuntza euskara izan zuen, eta eskolara joandakoan ikasi zuen gaztelera. Etxean ezin zitekeen euskara ez zen beste hizkuntzarik erabili, debekatuta baitzuten halakorik egiten aitak hala aginduta. Izan ere, aitak bazekien eskolaratu orduko ikasiko zutela gaztelera, eta lehenik euskarari eutsi ziezaiotela kezkatzen zuen.

Aitak euskararen aldeko kezka zuen bezala, ama gaztelera ondo ikasi ez izanak kezkatzen zuen; honengatik, hilabetez behintzat, bakarka amarekin gaztelera praktikatzeko jardun zuen —esperientzia haren ondoren, elkarri ez zioten inoiz gehiago gaztelera egin.

Aita eta ama euskaldun berriak izaki, Jon Etxaidek antzematen zuen bere euskara-maila nahi baino apalagoa zela, euskarazko hitzak erabili arren erdal egituretatik abiatu egiten zela askotan; morfologia mailan, eta adizkietan bereziki, huts nabarmenak zituela oharitzen zen, eta muga linguistiko hau gainditu nahi izan zuen gaztetandik, bere hizkuntza-maila hobetuz.



Galardi-Azpi Agiñako baserrian ematen zuten uda-garaia, aitak baserria han erosi baitzuen.



Aitak Agiñako Galardi-Azpi baserria erosi zuen, euskarazko inmersioa egin zezaten umeei: baserri-giroa ezagutuz, euskara hobetuz eta Donostiako hondartzetatik ihes eginez.

Agiñan hasi zen euskarazalezen Jon Etxaide, euskara jatorra baserriarrena zelakoan eta hauengandik asko eta ondo ikasi zezakeelakoan.

Irabazitako sosekin euskarazko liburuak erosi eta irakurtzeari ekin zion, *Poxpolin* haur-aldizkaria, *Argia* astekaria eta *El Día* egunkariko euskal atala irakurriz, besteak beste. Txomin Agirrerren *Garoa* hainbeste gustatu zitzaion non behin eta berriz irakurtzeari ekin zion, asetu arte.

Euskaltzaletasunarekin batera iritsi zitzaion abertzaletasuna Aitzolen artikuluak gogoz irakurtzean.

BIZITZAREN ETSIPENA

Gaztetan jadanik bakartia zela zioen, tristurarako joerak askotan harrapatzen omen zuelarik. Honengatik, agian, amak “el caballero de la triste figura” esaten zion.

Gaztetan halabeharrez ikasteak gogogabetzen zuen bezala, ondorengo urteetan gustokoa ez zuen lanean jardun beharrak ere, biguina sortzen zion. Eta halere, aurrera egin behar.

Erromantiko handia zen Jon Etxaide, eta munduan ibili beharrak, ezinegona sortzen zion; bere buruari eta Jainkoari askotan galdetu omen zion mundu honetan bizitzen egotearen

zergatiaz. Izan ere, askotan esana zuen ez zuela bizitza maite.

Egoera hauek gainditzeko, ezinbestekoa izan zuen erlijioa; lasaitasuna, azken finean, Jesusen kristautasunean aurkitu baitzuen. Mundu honetan bizitzea merezi zuela zioen, baldin eta beste mundura joateko bidea izan lehena.



Jon Etxaide 15 urte zituela hasi zen *El Día* egunkarian lehen itzulpen-lanak egiten.



Alai zakurrarekin Galardi-Azpi baserriko atarian.

EUSKAL SORTZAILE APARTA

50. hamarkadako idazlerik baliagarrienetakotzat jo izan da Jon Etxaide, eta arrazoirik ez da falta.

Itzulpenak, biografiak, eleberriak, dramak, ipuinak, artikulatuak, narrazio-bildumak, antzerki-obrak eta beste egin zituen.


Estilo ugari landu zuen, modu zehatz eta finean. Euskararen ezagutza mardula zuen horretan, hizkuntzaz egiten zuen erabilera bikaina nabarmendu behar da.

Literato gisara ere, berrizale izan zen, narratzaile orojakitunak, gertaera historikoetan oinarrituz eratzen zituen istorio bikainak eta, era berean, istorio barregarriak ere moldatzeko zuen erraztasuna aintzat hartuz gero, bereziki.

Bere lanen kutsu pedagogikoa ere aipatu beharra dago. Idazlan gehienetan oin-ohar mordoak ageri da, erabilitako hitzak azaldu, euskarazko ordainak eman, edo egitura sintaktikoak argitzerakoan, irakurleak idatzitakoak errazago ulertarazten dizkion idazlearekin egiten baitu topo.

Goitzen ugari erabili zuen aldizkarietan idazterakoan batez ere,

hala nola *Karranka*, *Uarrain*, *Etxaithar*, *Aldapeko*, *Zelai*, *Igeldo*, eta abar.



1962. urtean Domingo Agirre Novela-saria jaso zuen *Begia-Begitruk* eleberriagatik.



ITZULPENAK


Hamabost urte zituela egin zituen lehen itzulpen-lanak, aitak horretarako gogo emanda.

Euskaltzalea bazen ere, eta literaturarako joera bazuen ere, ez zen sormen literarioetan zuzenean sartzen ausartzen; honengatik besteen lanak itzultzen eman zituen lehen pausoak.

La Cruz astekari katolikoan Till Eulenspiegelen abenturak atalka argitaratzen hasi zen. Hastapenetan

makina bat buruhauste izan zuen, itzultzerakoan euskal joskera txukun landu nahi zuelako, eta halakorik egitea ez zitzaiolako beti erraza izan; honetan ere aitak lagundu zuen, azken zuzenketak berak egiten zizkiolako. Lana bertan behera gelditu zen gerra etortzean.


Pio Barojaren *Las inquietudes de Shanti Andia* itzuli zuen —*Itxasoa laño dago*—, eleberri bikaintzat zuelako, eta maila bikaineko obra hau euskaraz irakurri ahal izateko, itzuli beharra zegoela baitzekien.



Lehen lanak *La Cruz* astekari katolikoan argitaratu zituen. Hamabost urterekin Till Eulenspiegelen abenturak itzultzen hasi zen, aitak animatuta, *Karranka* goitizenez.

Bestetik, Barojak bere idatzietan erlijioaren inguruan esaten zituenak esanda —obra hau lasaienetakoa eta erlijioarekin gutxien sartzen zenetakoa kontuan hartu behar da— Etxaidek kristautentzat ere egokia izan zitekeela uste zuen. Liburuaren sarreran hala dio: “Eleberri onek, egille-emaitzak, alegia, eztauka katoliko batentzat kondenagarriarik, ez galgarriarik ere; beraz, irakurle katolikoa, zillegi zaizu irakurtzen, zure buruarekin estua baldin ba’zera ere”. (Etxaide, Jon: “Itz bi”, *Itxasoa laño dago*, 6 orr., Itxaropena, 1959, Zarautz)

EIZIE-ko ohorezko kide izendatu zuten 1991.ean, urteetan zehar itzulpengintzaren inguruan egindako lan oparo eta bikainagatik, besteak beste.



Pio Barojaren *Las aventuras de Shanti Andía* euskarara itzultzea merezi zuen lana zelakoan, *Itxasoa laño dago* prestatu eta argitaratu zuen 1959an. 1960 urtean, ostera, “aldakuntza batzuen arrazoiak” azaldu zituen *Euskera* aldizkarian.

ARTIKULUGILE



Egan, Euzko-Gogoa, Gernika, Yakin, Aranzazu, Karmel, Gure Herria, Olerti, Zeruko Argia, BRSVAP eta *El Diario Vasco* argitalpenetan idatzi zuen artikulu ugari.

BRSVAP-en Etxahunen bertsoak atalka argitaratu zituen urteetan zehar. Bertsoak jatorrizko zubereraz, euskara batura eta gaztelerara ageri dira itzuliak. Atal bakoitzaren buruan, lagunaren bati egiten dio eskaintza beti, bi hitz eskainiz delakoari: “Dolores ama”, “Loli arreba”, “M^o Hernandez ikaslea”, “Ziriako Andonegi eta Boni Otegi lagunak” eta abar. Bertso-sortaren ondoren, azalpena ematen du idazleak: kontakizunaren kokapena, bertsoen literariotasuna, eta noski, hizkuntzaren inguruko xehetasunak. Bertsoak oin-oharrez beteak ageri dira.


Zernahi artikulu idatzi zuen aldizkariotan, ezizenez sinatuak gehienetan.





10



Garaiko argitalpen askotan idatzi zuten. Bere hainbat obra hauen bitartez zatika argitaratu zituen.



Aldizkarietan idazten zuenean erabiltako goitizenen artean ageri dira besteak beste *Karranka, Uarrain, Etxaitzar, Aldapeko, Zelai eta Igeldo.*



Urteetan zehar, Etxahunen lanak argitaratzeari ekin zion BRSVAPen bitartez. Bertso bakoitzaren ondoren hizkuntza nahiz literatura mailako azalpenak ematen zituen.

IPUINAK

1950.ean Itxaropena argitaletxearen eskutik argitaratu zuen *Alos-torrea* lehen ipuin-liburua, Erdi Aroko erromantze batean oinarritua: Beltran, Otxanda, Usua, Belabeltz eta gainontzeko pertsonaien inguruko gora-beherak dira aipagai hemen.

Purra! Purra! ipuin bilduma 1953an argitaratu zen. Handik eta hemendik entzundakoak jaso eta liburu batean biltzea interesgarria zela pentsatu zuen, irakurlearen gozamenerako. Halere, kontakizun hauei buruzko kezka agertu zuen: “jazkeraz moteltxoak, gezak, margulak gelditu ez ote diran” (Etxaide, Jon: “Agurra”, *Purra! Purra!*, 7 orr., Itxaropena, 1953, Zarautz).

Liburuaren izenburuaren azpian “irri ta par egiñarazteko ipui sailla” dela dio, beraz argi uzten da hasieratik obraren asmo nagusia irakurleak ondo pasa dezan lortzea dela. Ondoren ere, hala dio: “Biotz-samiñak poztutzeko eta jendeari zabal-zabal par egiñarazteko argitara ekarri dittut ipuitxo abek. Txolarte on bat igaro dezazutela beroiek irakurriz opa dizute egilleak”. (Etxaide, Jon: “Agurra”, *Purra! Purra!*, 9 orr., Itxaropena, 1953, Zarautz)



Alos-Torrea erdi-aroko erromantzean oinarritutako lana, 1950. ean argitaratu zuen.

11

Purra! Purra! ipuin-sorta, irakurleari ondo pasatzeko momentuak eskaintzeko helburuarekin argitaratu zuen 1953.ean; euskara bizia eta fina da hemen ageri dena.



Etxaideren asmoa, lan honi beste ipuin-sorta batzuekin jarraipena ematearena zen, euskarari kimu berriak atera eta hainbat estilotan idaztean, hizkuntza idatzia aberastuko zelakoan. Bere borondatea euskararen alde aritzea baitzen.

Liburu potoloa egin baino, apalagoa, irakurterraza eta inprentatik atera ondoan eroslearentzat garestiegia izango ez zena lortzea zenez, ipuin guztiak liburu bakarrean bildu beharrean, zatika eskaintzea pentsatu zuen.

Pernando Plaentxiatarra (1957) kontakizun zelebreek biltzen dituen lana da. Juan San Martinekin mendian paseoan ibiltzen zela, San Martinek kontaktzen zizkion kontakizun eta ateraldietan oinarritutakoa da, haien bilduma baita.

Pasadizo tristeak umorezkoekin tartekatzen dira hemen; lana idatzi zuenean, egileak liburu irakurterraza sortu nahi izan zuen, jendeak aise irakurriko zuena, ondo pasatuz. Ahozko euskara hain bizia eta aberatsa izanda, hau idatzizkoan ere landu beharra zegoela zioen. Kontakizun zelebreen bitartez hau lortzerik zegoelakoan ekin zion liburua idazteari.

ANTZEZLANAK

Amayur antzezlanak 1951.ean argitaratu zen *Euzko Gogoa* aldizkarian. Amaiurko XVI. mendeko gudariei buruzko gertakizunak kontaktzen dira drama historiko honetan, nahiz eta gertaerak ikuspegi berezi batetik interpretatzen diren.

Bertan, Fernando Katolikoaren eta Carlos V.aren garaietan, Nafarroako independentziaren alde egindako borrokak azaltzen dira.

Markesaren alaba —ondoren *Markes baten alaba* izenpean argitaratu zen, Iturrinok kantaren hirugarren ahapaldian hala diolako— 1956.ean idatzi bazuen ere, lehen aldiz 1958an plazaratu zen *Egan* aldizkarian, ondoren Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren bitartez ere berrargitalpena ikusi zuelarik (1982). Hiru ekitaldiz osatutako obra dramatiko eta aberatsa da; lanaren hasieran hiztegia ageri da, eta obran zehar ere, oin-oharretan euskarazko ordainak ageri dira.

Begia begi truk drama historikoa *Egan* aldizkarian argitaratu zuen 1962an. Bereterretxeren dramaren oinarritzen da, Gaztelak Nafarroako erreinua armen indarrez menperatu eta burujabetza ukatu zioneko.

Agramondarren —Nafarroako erreinuaren askatasunaren aldekoak— eta beamondarren —Gaztelarekiko batasunaren aldekoak— arteko borroketan aurkitzen da obraren funtsa, Zuberua eta Behe Nafarroaren arteko borroka latzak tartean;

gertakizun guzti hauek Bereterretxeren dramatik abiatuta ulertu behar dira idazlanean. Bereterretxeren heriotza gertakizun historiko-politiko guzti hauek argitu nahi diren bitartean aurkezten da *Begia begi truk* lanean.


13



Amayur antzezlanaren 1951.ean argitaratutako aldizkarian bertan Fernando Katolikoaren eta Carlos V.aren garaietan, Nafarroako independentziaren alde Amaiurren egindako borroka azaltzen dira.



Begia begi truk antzezlanaren Egan aldizkarian argitaratutako lehengoz 1962an —eranski gisara ere argitaratu—. Drama historiko hau Bereterretxeren dramaren oinarritzen da, Gaztelak Nafarroako erreinua armen indarrez menperatu eta burujabetza ukatu zioneko.



ELEBERRIAK

Joanak Joan eleberria, Barkoxeko Piarres Topet Etxahun koblakariaren bizipenetan oinarritzen da. Euskaltzaindiaren lehen saria jaso zuen eta 1955.ean Itxaropena argitaletxeak eman zuen argitara.

Erdi Aroan kokatutako *Gorrotoa Lege* lanak (1964) Txomin Agirre saria jaso zuen. Oñaztar eta ganboatarren arteko borroka-giroan kokatu zuen, banderizoen garaietan.



Joanak Joan eleberria, Barkoxeko Piarres Topet Etxahun koblakariaren bizipenetan oinarritzen da. Euskaltzaindiaren lehen saria jaso zuen lanak, eta 1955.ean Itxaropena argitaletxeak eman zuen argitara *Kuliska Sorta*an.

BESTEEN LAN BILDUMAK

Etxahunen bertsoak gipuzkeraz (1969) zubereratik gipuzkerara itzulitako lan bikaina da. Gerra bete-betean zegoela, *Gure Herria* aldizkarian P. Lhanderen “Le barde Etchaun” biografia irakurri zuen eta Barkoxeko koblakariari buruzko grina piztu zitzaion.

Lehen aldiz *Oleri* aldizkarian argitaratu zituen —*Etxahun'en bertsoak gipuzkeraz emanak* izenpean— Aita Onaindiak proposatuta.

Etxaidek zuberotarraren lana miresten zuen eta Hegoaldera gerturatu eta zabaldu nahi zuen poetaren lana. Ekialdean oso idazle onak zeudela zioen, mugaren bestaldean ezagunak ez zirenak; honengatik haiek ezagutarazi nahi izan zituen mendebaldean.


Etxahunen bertsoen edertasuna, zorroztasuna, oparotasuna eta jatortasuna irakurle gipuzkoarrei jakitera eman nahi zien, eta horretarako gipuzkerara itzuli beharrak zeudela erabaki zuen.

Itzulpena egitean, hitzez hitz egin beharrean, gipuzkerazko bertsolarien kutsua eman nahi izan zien, irakurleak arrotzak senti ez zitzaizkien irakurtzeko

garaian —Txirrita, Xenpelar, Bilintx edo Iparragirreraren bertsoak irakur zitezkeen moduan moldatu zituelarik.

Aditz-jokoa eta morfologiarekin arazoak zituenean, Lhande eta Larrasqueten hiztegieta jo zuen argibide bila. Arazo gramatikalak, bestalde, Campionen gramatikarekin konpontzen zituen. Halere, itzulpen osoan zehar, Jon Miranderen laguntza izan zuen —obraren izenburupean “Jon Miranderen lankidetasunez” idatzi zuen.

Arturo Kanpion-en bost euskal-narrazio eman zen argitara 1993an.



Piarres Topet Etxahun koblakari zuberotarraren bertsoez liluratuta, gipuzkerara itzuli eta bertako irakurleei ezagutzera eman beharra zegoela ohartuta, lanari ekin zion. Ondoren ere inguruko artikulua ugari idatzi zuen aldizkarietan.



Jon Etxaidek prestatutako Arturo Kanpionen narrazio-bilduma plazaratu zen 1993.ean Ereinen eskutik.

BIOGRAFIAK

Biografia entzutetsuena bere aitaren inguruan idatzi zuena da, *Etxaide jauna* lana, hain zuzen. Hemen aitari buruzko datuak eta kontakizunak dira aipagai.

Amasei seme Euskalerriko, Etxaidek hainbat euskal idazleren inguruan emandako hitzaldien ondoren, bilduma gisa argitaratu zen.

1956an Euskaltzaindiak biografia-sariketa bat antolatu zuen. Biografiak aurkezteko epea iristean, Etxaidek 16 besterik ez zituen idatzirik —oinarrietan 60-80 aurkeztu behar zirela aipatzen zen—, eta halere hauek aurkeztu eta saria irabazi zuen. Lana 1958an argitaratu zuen Itxaropenak *Kuliska Sorta* sailean.

Lanaren izenburuarekin eztabaida handia sortu zen garaian. Gramatikalki euskara jatorra ote zen “hamasei seme Euskalerriko” egitura sintaktikoa izan zen eztabaida nagusia. Kontra egin ziotenak, Arana Goiriren eta Altuberen jarraitzaileak izan ziren, batez ere. Polemika honetan gogor jardun zuena, Lino Akesolo izan zen. Jon Etxaidek bere izenburuaren egokitasuna defendatzeko, euskal tradizioan oinarritutako hainbat adibide eman zuen artikuluetan zehar.

15

Bertan, Etxaiderentzat aipagai diren idazle garrantzitsuenak aurkezten dira: Axular, Elizanburu, Etxahun, Iturriaga, Iparragirre, Mogel, Astarloa, Aita Larramendi, Joanes Etxeberri Sarakoa, Añibarro, Oihenart, Etxepare, Iztueta, Juan Mateo Zabala, Mendiburu eta Leizarraga.



Amasei seme Euskalerriko biografian, 16 euskal idazleri buruzko biografia landu zuen. 1956.ean Euskaltzaindiak antolatutako saria irabazi zuen lan honekin.

LANAK ARGITARATZEKO OZTOPOAK

Euskaraz sortzeko eta jarduteko ezintasuna zela eta, oztopoak gaindituz lanari eutsi behar zitzaiola argi zuten Etxaidek eta beste euskaltzalek.

1950a arte ezin izan zen euskarazko libururik argitaratu, urte honetan plazaratu zirelarik Joxe Artetxeri esker Orixeren *Euskaldunak* eta Etxaideren *Alos-Torrea*. Gaztelera idatzitako euskararen eta erlijioaren inguruko lan bakanak argitaratzen utzi zituzten, alabaina.

Ezer argitaratu aurretik baimenak lortu behar ziren. Honela, *Purra! Purra!* lanak bigarren saioan lortu zuen baimena, gaztelaniazko itzulpena eginarazi ondoren. *Joanak Joan* eleberriarekin berriz, urtebetez behintzat jardun zuen borrokan Información y Turismo-koekin, argitaratzeko baimenik ez ziotelako ematen. Azkenean, Zarautzeko Itxaropena Editorialak 1952a geroztik argitaratzen zuen *Kuliska Sorta* bilduman lortu zuen plazaratzea.

Garaiko euskaltzaleak Aldundiko Liburutegian biltzen ziren Joxe Artetxeren inguruan; hilero euskararen inguruko hitzaldiak hasi ziren

antolatzen Euskaltzaindiaren gidaritzapean.

Bitartean, Aita Onaindiak *Karmel* eta *Olerti* aldizkariak, baita liburuak ere argitaratzen jardun zuen; 1956an *Euskera* aldizkaria argitaratzen hasi zen berriro (*BRSVAP* 1945ean hasi zen argitaratzen, eta 1948an *Egan* ele bitan lehenik eta euskara hutsez ondoren), Zaitetik Guatemalatik *Euzko Gogoa*-rekin jardun zuen, eta I. Fagoaga *Gernika*-rekin.

Argitalpen guzti hauek arazo ugari —legeak inposatutako ezintasunak tartean eta finantzabideak lortzeko garaian— pairatu behar izan zituzten. Urte hauetako idazleek, idazteaz gainera, argitaratzeko baimena eta diru-sarrerak lortzeaz, eta plazaratutakoa saltzeaz arduratu behar izan zuten.


EUSKARA BATUA ETA EUSKALTZAINDIA

1956.ean Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen. Ondoren ere, Mitxelenak Euskaltzain oso izendatzeko proposatu nahi izan zuen, baina Etxaidek ez zuen nahi izan eta Juan San Martinen izena proposatu zuen. 1991.ean Euskaltzain Ohorezko izendatu zuten.

Jon Etxaide batasunaren bila ibili zen beti. Joxe Azurmendik dioen bezala, “euskara bildua” —1998ko maiatzean Donostiako Udal Liburutegian emandako hitzaldian aipatua— egiten zuen, hots, euskalki guztietatik hartzen zituen gauzak, bai eta euskal literatur tradizioetik ere, bere idazkera osatu eta aberastu asmoz.

Idazlearen lanetan ageri diren oin-oharrak, irakurlea aberasteko dira baliagarri. Euskararen maila igo nahi du, ulergarri eginaz era berean. Horretarako formaren edo esapideren baten azalpena ezartzen du oin-oharrean, irakurlearen euskara aberastearekin batera, irakurritakoa ulergarri bilakatzeko.

17





Euskaltzaindiak 1991. urtean izendatu zuen ohorezko euskaltzain eta 1993garrenean, Donostiako Foru Diputazioan, agiria eman.



LANEN BERRARGITALPENAK

Lan bat amaitu eta handik gutxira berregiten hasten zen. Egindakoak ez zuen sekula asebetetzen, beti aurkitzen zuelako hobetu zitekeenik. Honengatik argitaratu aurretik bere lanak behin eta berriz irakurri eta zuzentzen zituen moduan, lan hauek argitaratuak izan ondoren ere, berrargitalpen zuzendu-hobetuak izaten zituzten.

Hala gertatu zitzaion, besteak beste, *Joanak-Joan* obrarekin eta *Itsasoa laño dago* itzulpenarekin. Lehen argitalpenean ondo zegoela iruditu zitzaion arren, handik urteetara berriz irakurtzean, txarra zela iruditu eta gauza mordoa aldatu beharra zegoela otu zitzaion; bigarren argitalpenari ere akats ugari topatu eta hirugarren aldiz idatzi zuen.

Aitarenguruko *Etxaide jauna* biografiak ere argitalpen bat baino gehiago izan du zuzendua eta eraldatua, *Gorrotoa Lege* sarituak hiru argitalpen, *Markesaren alaba*-k 1958an lehena eta 1982an bigarrena eta *Begia begi truk* antzezlanak Gero-k argitaratu zuen bigarren aldiz.

Etxahun'en bertsoak gipuzkeraz lehen aldiz *Olerti* aldizkarian argitaratu zen, zatika. Ondoren liburu moduan

argitaratu zuen, azalpen batzuk gehituz: Etxahunen bizitzaren berri laburra, zubererazko alokutiboari buruzko adierazpena —F. Krutwig eta R.M. Azkueren lanen laguntzarekin—, eta Etxahunen heriotzaren ehungarren urteurrenean egindako lantxo batzuk —*Egan* aldizkariko “Etxahun’en heriotz-ehunurrenez”, *Zeruko Argia*-n azaldutako “Etxahun munduan eta teatruan”, eta Iratzederri lapurteratik gipuzkerara itzultitako *Nun abil orain?* olerkia.

Gogoan zuen idazleak, berriz, idatzitako obrak zuzentzen eta berridazten ematen zuen denbora hura gauza berriak sortzen erabili zezakeela. Baina argi zuen asko eta txarra sortu baino, hobe zela gutxi eta maila onekoa argitaratzea.

Azken urteetan, ez zuen ezer berririk sortu, eta aurrekoak zuzentzen, oharrak gehitzen, aldatzen eta berridazten pasa zituen urteak. Idazle berriei ere lekua utzi behar zitzailea eta, bereak egin zuela zioen; belaunaldi berrien txanda zelakoan, aurretik egindako bere lanen birmoldaketan murgildu zen.



Bere lanek berrargitalpen ugari izan dituzte.



EUSKAL LITERATURAREN INGURUKO IRITZIAK

Euskal poesiari, herrikoia nahiz landua, maila bikainekoa irizten zion, eta beste herrialdeetakoekin ere alderatu zitekeela. Halere, gerraurrekoak (Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Elizanburu, Etxepare) gerra ondorengoekin (Aresti, Gandiaga, Iratzeder) alderatuz gero, lehenak hobeak zirela uste zuen; batez ere, lehenek berrikuntza ekarri zutelako bere iritziz, bigarrenak ez bezala.

Eleberrigintzan, txirotasunetik ateratzen ari zela azken urteotan, baina beste herrialdeetan egiten zenarekin alderatuz gero, euskal eleberrigintza oso maila apalekoa zela ere esaten zuen. Hau hala zela erakusteko, bere *Gorrotoa Lege* eleberri historikoa Zoe Oldenbour-en *La pierre angulaire*-rekin alderatzen zuen, lehena oso maila apalekotzat joaz.

Itzulpen-lanak egiten hastearen arrazoietakoa bat ere hau izan zen, alegia, erdal eleberri bikainak euskaratuz, euskaraz eleberri onak irakurtzeko aukerak eskaintzea.

Etxaidek dioen bezala “euskera, beartsu, oso beartsu iritxi zaigu euskal-pizkunde egunetara. Alabaña, euskerak, guna, mamia,

aberats-aberatsa dauka ta gure baratz ederra ondo jorratu, landu ta ongarritzen ba’degu, emaitz aundiak ekartzekotan dago”. (Etxaide, Jon: “Aurreitza”, *Alos-Torrea*, 8. orr., Itxaropena, 1950, Zarautz.)

Idazleek euskaragatiko zuten maitasunagatik hizkuntza lantzen eta zaintzen ibili arren, askotan irakurleak ulertu eta iritsi ezinik gelditzen zirela somatzen zuen. Honengatik irakurleak poliki-poliki hezitzen joan beharra zegoela zioen. Eta hemen dator bere galdera: “Idazleok erriaren jakintza mallara makurtu ala euskerari soilki begiratuz bera landu ta aberastu erriari jaramonik egiteke?”. (Etxaide, Jon: “Aurreitza”, *Alos-Torrea*, 9. orr., Itxaropena, 1950, Zarautz.)

Euskara hitz egin bezala idatziko balitzaie irakurleei, “elertiak” aurrera beharrean atzera egingo zukeela zioen, euskal literaturaren maila apalduz denborarekin. Bestetik, euskara jakintza-maila askotara ez zela iristen bazekien.

Guzti honengatik, garbi —hitz, aditz eta joscerei zegokionez— gehiegikeriara jo gabe, euskaldunek ulertzeko moduan, eta gazteleraz nahiz euskarazko itzulpenekin (oin-oharretan) landu behar zirela idazlanak proposatu zuen. Guzti

honekin irakurleak neke gehiegi gabe ikasiko luke eta bere euskara-maila ere altxatuz joango litzateke.


Euskal literaturaren maila indartzeko, non eta zertaz idazten zen kontuan hartu beharra zegoela aipatu zuen. Aldizkari eta egunkarietan “erri xearentzat” erraz idaztea gomendatzen zuen, tarteka zerbait berria sartuz idatziotan.

Euskara hurrekin eta tentelkerietan jarduteko hizkuntza baino gehiago bazela erakutsi nahi zuen: “Euskera ipuietako tentelkeriak edo baserritarren arteko jardun errexak adierazteko ez-ezik, edonolako giza-gogakizun adirazteko gaitu bear degu... Euskaldunok gure lozorrotik esnatu gera. Gure izkuntza beste edozein errikoa ainbat jasotzeko eskubide degu ta jaso ere egingo degu, euskera ezpaita iñoren morroitzako”. (Etxaide, Jon: “Aurreitza”, *Alos-Torrea*, 11. orr., Itxaropena, 1950, Zarautz.)

Gai “adituen” inguruan ezer gutxi idazten zela ohartuta, gai haien inguruan ez idazteko ala mordoilokeriaz beterik idazteko duda sortu zitzaion. Honetarako euskarak berez zituen gaitasunak ezkututik atera, indartu eta erabili beharra zegoela ere bazioen.

Azken finean argi zuen Etxaidek euskal literaturak ez zuela ahozko hizkeraren maila apalera jaitsi behar, eta irakurleak ez zirela idazkera ulertezinekin asetu behar.

21



HARREMANAK EUSKAL IDAZLEEKIN

Hainbat euskal idazlerekin adiskidetasun fina izan zuen; hauen artean aurkitzen da Jon Mirande. Pertsonen arteko desberdintasunen gainetik, idazleen arteko errespetua eta mirespena zegoen; eta honek batu zituen.

Jon Mirandek laguntza handia eskaini zion Etxahunen bertsoak gipuzkeratzen ari zenean, eta batez ere erlijio aldetik izan zituzten diferentzien gainetik, Etxaidek beti eskertu zion eskainitako laguntza handia. Miranderen obrak argitaratzen eta banatzen ere asko lagundu zuen Etxaidek.


P. Lhande miresten zuen; izan ere honen lan batek Etxahun gehiago ezagutu nahi izateko aitzakia eman zion. Bestalde, ahaztutako txokoetatik bertso estimatuak atera izana eskertzen zion. Lhanderen hiztegiak, bere obrek oro har, eta euskatzaletasunak ere, Jon Etxaideren estimazioa jasotzen zuten.

Joxe Artetxerekin harreman sakona izan zuen. Bere obrak argitaratu ahal izateko eskaini zion laguntza urteetan eskertu zion. Artetxek, bestalde, Inazio Maria Etxaide hil eta handik urtebetera bere inguruan idatzi zuen artikulua

BRSVAP-en, bereziki eskertu zion idatzi baten bitartez.

Idazleez gain, euskarazaleak ere estimatzen zituen, hala nola Aita Julian Larazabal, Aita Mikel Zubiaga, Lhande, Onaindia, Peillen eta beste abar luze bat.

22



AMAITZEKO

Jon Etxaidek euskal kultura eta literaturari ekarri handia egin dio euskaltzale eta sortzaile bezala. Gerra garaian, euskal kultura itolarrian zebilenean, berebiziko lana egin zuen euskara zulotik ateratzeko.

Jendeak euskara hitz egiteari uzten ari zenean egoera politikoak hala behartuta, euskarazko eskolak ematen hasi zen ezkutuan eta dohain.

Ezer argitaratzerik ez zegoen garai haietan, ezkutuan mugaren alde batetik bestera argitalpen bakanak igarotzen ibili zen, eta liburuak etxez etxe saltzen ere jardun zuen.

Bere obra propioak ugariak izan ziren eta etenik gabe lanean jarraitu zuen beti, lan hauek argitara emateko baimenak eskatu, egindako lanak itzuli eta alde batetik bestera jardun behar izan zuen arren. Ondoren ere, alde aurretik egindako lan haiek birmoldatzen eta aberasten jarraitu zuen, sortze-lan berria ez baina, berrizalea landuz beti.

Lanen oparotasuna landutako estilo desberdinei dagokionean, nabarmendu beharrekoa da; dramatik eleberrri historikoetara joan gaitezke, kontakizun, antzerki, biografia, bilduma, itzulpen eta artikuluetatik

igarota, Jon Etxaideren obran zehar. Kostunbrismotik urrundu eta errealismora hurbildu zen; gordinkeria azaltzen zuen, baina neurri barruan beti ere.

Askotan, gertaerak bizitzari buruzko tesiak defendatzeko erabili zituen, honengatik historizista ageri zenean ere, gertakizunak defendatzen zuen ezkortasuna azaltzeko bide ziren.

Erabilitako euskararen maila ere aipagarria da. Mendebaldeko eta ekialdeko euskalkiak ezagutzen zituen, euskara aberatsa da berea.



Eskertu behar zaio idazle donostiarrari, euskara irakurtzeko ohitura zabaldu eta indartu nahi izana irakurleengan, horretarako argi eduki baitzuen irakurlea hezi beharra zegoela, euskaraz ere edozein gairi buruz irakurri (eta idatzi, beraz) ahal izateko aukerak sortuz.

Duda-izpirik gabe, Jon Etxaide euskal idazle kementsu, berritzaile, argi eta oparoenetakoa da gerraondoko euskal literaturan.

24



Jonek beti izan zuen gustoko mendian ibiltzea. Hemen Anbotoko gailurrean ageri da.